BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

5097

EBAZPENA, 2011ko irailaren 30ekoa, Etxepare Euskal Institutuaren zuzendariarena, dantza-birak sustatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duen Etxepare Euskal Institutuaren zuzendariaren 2011ko ekainaren 25eko Ebazpenean finkatzen den gehienezko zenbateko orokorra aldatzen duena.

AURREKARIAK

1.– Etxepare Euskal Institutuaren zuzendariaren 2011ko ekainaren 25eko Ebazpenak euskararen eremu geografikotik kanpo dantza-birak sustatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen du, eta bere 2.1 artikuluan diru-laguntza horien zenbateko orokorra hogeita zortzi mila zazpiehun eta hamar (28.710) eurotan finkatu zuen.

2.– Halaber, ebazpen horren lehenengo xedapen gehigarrian honako hau aurreikusten zen:

«Eskatutako diru-laguntza osoa kontuan hartuta, 2. artikuluan ezarritako zenbatekoak aldatu ahal izango dira, Etxepare Euskal Institutuaren zuzendariaren ebazpen bidez, baldin eta Etxepare Euskal Institutuaren beste programa batzuk gauzatu ondoren aurrekontu-disponibilitatea badago. Aldaketa hori eskabideei buruzko erabakia hartu aurretik egin beharko da. Aipatutako ebazpena EHAAn argitaratuko da».

3.– Deialdi horretako diru-laguntzen eskabide-epea 2011ko uztailaren 21ean ireki zen. Epe horretan zehar ikusi da jasotako eskabide eta diru-laguntzen kopuruagatik komenigarria izango litzatekeela modalitate horietarako zegoen diru-kopurua gehitzea.

4.– Une honetan, diru-laguntzen deia egiten duen ebazpenaren xedapen gehigarrian aurreikusten den moduan, aurrekontu-disponibilitatea badago.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Etxepare Euskal Institutuaren zuzendariaren 2011ko ekainaren 25eko Ebazpenean finkatzen den gehienezko zenbatekoa lau mila eta berrehun (4.200) eurotan gehitzea; ebazpen horren bidez, euskararen eremu geografikotik kanpo dantza-birak sustatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen da.

Beraz, aipaturiko ebazpenaren 2. artikuluan aurreikusitako diru-kopurua hogeita hamabi mila bederatziehun eta hamar (32.910) eurotan finkatzen da.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Etxepare Euskal Institutuaren zuzendariari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Sailari, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.– Ebazpen honek hartzen denetik aurrera izango du eragina.

Donostia-San Sebastián, 2011ko irailaren 30a.

Etxepare Euskal Institutuaren zuzendaria,
MARÍA AITZPEA GOENAGA MENDIOLA.